

Jose Mari Kortabarria Agirre

*Oñati, Gipuzkoa
(1918-2015)*

Aurkibidea

Biografia



Larraña auzoko Sarramendi baserrian jaioa. 4 anai-arreba ziren. Hasiera batean haien baserrian zegoen auzoko eskola, baina gerora eraikin bereizi bat egin zuten. Han ibili zen 14 urte ingurura arte. 18 urterekin gerrara joatea tokatu zitzaion soldadu eta 5 urte egin zituen Espainian zehar hara eta hona. Handik itzulitakoan Garai lantegian hasi zen lanean eta bertan egin zuen lan jubilatu arte.

Zintak

ONA-053

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-12-02
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ONA-159

- **Proiektua:** Gerra Gogoratu Guran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-11-19
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Sarramendin jaioa

- **Erref:** ONA-053/002
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:01:35. **Bukatu:** 00:02:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Sarramendi baserrian jaio zen 1918. urtean. Han bizi izan zen soldadutza bukatu zuen arte. Gero gerrara joan behar izan zuen. Gerra bukatu eta lanean ibili da jubilatuta arte.</p>

2. Bost urte soldadu

- **Erref:** ONA-053/004
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:07:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Soldadutza garaian gerra suertatu zen. Oroimen oso txarrak ditu gerra denborakoak. Denera, bost urte eta erdi egin zituen soldadu. Sevillan eman zituen bi urte, jasan ezineko beroarekin udetan.</p>

3. Gerra latza izan zen

- **Erref:** ONA-053/005
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:07:59. **Bukatu:** 00:11:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Onik itzuli zen gerratik. Baimen batzuk izan zituen, baina arazoak zeuden etxera etortzeko. Gerrako kontu latz batzuk azaltzen dizkigu.</p>

Transkripzioa

- Eta bueno, ha akabo zan ha be. Osasunakin etorri giñan, hasi giñan lanian fabrian ta ezkondu giñan ta honeik be etorri ziran ta segi aurrera!
- Eta hor denpora guzti horretan han egon ziñanian etxera etortzen ziñan noizian behin?
- Bai, noizian behin bai. Ez behinguan ez, baiña ba ze esango dotsut ba nik, ba ni handik etorriko nintzan ba leheningo fan nintzanetik eztakit ba nik, zortzi hillabetera edo, sei hillabete zortzi hillabetera edo holakon bat. Emuten oskuein permisua igual zortzi egun ta hola, baiña problemak egoten ziran orduan, etorri ta, por ejemplo Teruelen bai, eta emun oskuen permisua eta zela etorri? Ez euen trenik, ez euen autobusik, ez euen ezebe. Kamiñora urten ta obligaziñua eukein kamion militar danak kamiñuan geratu in bihar ziren, eta geraketan ziran kamiñuan eta gañian jarri ta Zaragozaraiño, eta behin Zaragozara ezkerro egoten zan trena baiña zona horreittan ba pentsau, eta gero etxera etorri ta holaxe, zelabait, behin akordaitten naiz, egon be holaxe konbinaziñuak, trenak etorten ziran ba nunbaittetik nunbaittera, eta nik neukan beste lagun bat Araozgua, eta bagetozen eztakit nundik zan, Terueldik ala hor nunbaittetik eta Brinkolan geratu zan trena eta baziran ordua de atake edo gabian, eta guk ze ingo xuau ta bajau giñan eta bixok goizeko ordu bata edo zerien, bajau Brinkolan ta Oñatira, ha Araotzera eta ni Sarramendira, goiza, eguna zabaldu orduko Sarramendira. Bai hareik egun latzak izaten ziren, gero puska bat normalizau ziren baiña geizki ibilli bihar izaten zan. Gero bai, ni gero fan nintzan mobilizauta ta orduan trenak eta danak egozen martxan, gaiñera salbokonduktua emuten oskuen eta ondo. Baiña gerra pasau zanian eta orduan, haik oso egun eskasak izan ziren.
- Eta ze itten zenduan zuk? Ze misiño edo ze funziño, ze itten zenduan? Ze lan?
- Guk zerien geukan artilleria, kañoiak geukan, baiña han infanteriakuk eta ibiltten ziren, ta gaur esanda ezta sinistu be in, orduko gauzak. Han ba republikanuok edo, handikaldekuok, atakiak egoten ziranian ta bata aurrera eta bestia atzera, lurrian hilda egozenai, hilddakuai, erropak kendu eta jantzi, e? [...] Hotzagatik, e? Hotzagatik. Hilddakuak pilluzik egoten ziren, zerien, lurrien. Ha oso serixua zan, gero mobilizau giñanian orduan fan gitzan [...] orduan gosia, jan ez, jan gutxi, eta artian hantxe egon bihar.
- Eta lo itteko ta?
- Ba lo in, han basuan? Jarten ba zan lurrien ba sua indda, ba hantxe zutittu barik, hantxe geldik. Eta bestela zanga bat jo, zangatxo bat jo ezkie, eta lurrien zangan sartu eta han aiziak etzan korritten, eta hantxe bestela ba... Eta bueno, holaxe fan ziren.

4. Sarramendiko eskola

- **Erref:** ONA-053/006
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:11:54. **Bukatu:** 00:14:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Sarramendiko familia. Auzoan eskolarik ez zegoenean, euren baserrian antolatu zuten eskola. Berak izan zituen maisuak gogoratzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Zenbat anai-arreba zarie?
- Gu lau, bat hil zan, gaztiena, eta beste hiru anae, bat Errekalden bizi da, bestia zerian, hor Sta. Mariña ondoko zer baten, zela esaten xako horri? Gregorio bizi dana zela da? Hantxe, zerien, Abenidako atzekaldian. Eta neu hiru anae, oin hiru anae bizi gara, bata neu zaharrena 90 urte, bestiak Bittorianok eukiko (di)ttu 87 eukiko (di)ttu marzuan eta Gregorio ha Bittorixan klinikan dau, harek dako ba 82tik hirura, eta...
- Eta umetan baserrixan lan in biharko zenduen, ezta?
- Bai, ba guk eskolan, hor gure auzua izan zan bastante oso gizon, famelixia ondo arreglau ziran alkarreaz ta han ez euen eskolarik eta ez euen eta geure etxian egoten zan leheningo eskola holako, holako apartamentutxo baten eta hantxe egon zan eskolia. Ta gero auzuak iñeben eskolia iñeben, hola edifiziotxo bat, ba politta, etxe politta, ta gero aintamientuak lagundu osten zeozter eta in ziran ba 12-14 etxien artian eskolia iñeuen ta gero ekarri euen maistrua hara, eta maistruak egoten zan astian edo hillian behin etxe baten, ha eskolatik faten zan etxietara, lo ta in eta jan ta ittera, eta han ikasi geben eta bastante ondo ikasi geben gaiñera, ta maixuak bastante ondo lagundu oskun eta etorten ziren bastante gaiñera, hemen Torre Etxebarrikuak eta Errekaldekuak faten ziren hortik hara, e?
- Lizargaratera?
- Eskola haretara, bai.
- Eskolia Lizargaraten egon zan?
- Ez, Lizargarate baño beherao, Sarramendittik aurrera fanda, hola etxe txikitxo bat, oso, barri-barrixa in zan, eta gero ba kitto, hantxe itten geben gure bizimoduori.
- Zein zan maistrua?
- Zela esango dotsut ba nik izena, lehenao fraide egondako bat zan, "Lomi" izango zan, haren izena ez esan, Lomi, Lomi, bai Lomi, ha Gregorio edo eztakit zela zan, Lomi. Eta gero ha fan zanian egon zan beste bat Bergarakua egon zan, hola ha bebeste puxkatxo baten ta gero egon zan Olabarretako bat, ha be fraidietatik urten dakua eta hola, gero hor akabo zan zeori eskoliori. Eta han baiña gu eskola hartan ibilli giñan 30 lagun edo gehixau ibiltten giñan.

5. Arabara garia ebakitzera

- **Erref:** ONA-053/008
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:17:17. **Bukatu:** 00:21:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Erdararekin arazoak izaten zituzten arren, Joxe Mariren aitajauna eta auzokideak Arabara joaten ziren garia ebakitzera sega bizkarrean hartuta; auzo bakoitzeko segalariak urtero herri berdinerara joaten ziren. Eurak eskolan defenditzeko beste erdara ikasi zuten.

6. Sarramendiko monagilo

- **Erref:** ONA-053/009
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:21:02. **Bukatu:** 00:23:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Zañartun ere ibili zen eskolan eta monagilo ikasketak ere egin zituen bertan. Mutikotan egiten zituzten jolasak: "atxintxika" karrerak, "harrapo-harrapoka"...</p>

7. Erromeria zaharra

- **Erref:** ONA-053/010
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:23:04. **Bukatu:** 00:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Azalditan hasiera baten eta Lizargaraten gero elkartzen ziren urtean behin auzokoak bergarar eta antzuolarrekin oso giro onean.</p>

Transkripzioa

- ... jai egunetan ta goixan Lizargarate egoten zan, Antzuelakuak be etorten ziren hara, Bergara aldeko baserriakuak be baitta, han goixan ha betik egonda paraje animaua edo, Bergararrak be bai, Antzuolarrak be bai, ta hemenguak eta...
- Hori noiz, domeketan ala...?
- Bai, domeketan. Baiña hor Lizargaraten, gu baiño, amandriak eta esaten euen handik harutzatxuao Azalditta edo holako zer bat, han egoten zan holako zer bat, juntaitten zirala domeketan eguraldi ona euenian betik juntaitten ziran, Antzuolakuak be bai, Bergara aldeko baserri danekuak be bai, ta horkuak be bai, hantxe juntaitten ziren, eta gero handik ba Lizargaratera pasau zan hori, han Lizargaraten baserrixa eta taberna pittin bat edo ifiñi euen eta ba...
- Ezagutu neben nik hori.

8. Saltzera Bergarara eta Zumarragara

- **Erref:** ONA-053/011
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:24:04. **Bukatu:** 00:28:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Ganadu asko eta 80 bat ardi zituzten. Gazta Bergaran saltzen zuten eta bildotsak Zumarragan. Errekadutara astoarekin kalera joaten ziren. Artoa eta garia ehotzera errota ezberdinetara eramaten zituzten.</p>

Transkripzioa

- Zu umia ziñanian, ganaduak eta bazekazuezen, esan dozu ittulan lan egitten...
- Bai, gurian egoten ziren ba bost bat behi, ta bi idi ta txahalak lau edo bost bat txahal eta larogei bat ardi eta hiru-lau bat bihor, astua, ba bastante.
- Txarrixa be bai ekiko zenduen, ez?
- Txarrixak bi behintzet bai eta hola izaten zan lehen bizimodu hori, hola izaten zan.
- Ta zein ibiltzen zan artzain?
- Artzain ni ez naiz sekula ibilli, bueno han etxe inguruan zala mutikotan bai baiña bestela etorten ziran neguan hona behera, zera Berotegi, Berotegiko zera, hor etxe huts zahar bat euan han, eta hortxe egoten ziren bi hillabetian eta gero atzera gora, gero handik faten zan Arrolamendi aldera eta han esnia eta [...], hara illunkaran fan eta erosi edo hango zerok, esniok kendu ta hurringo egunian mendixan ibiltten ziran, libre ibiltten ziran.
- Orduan gaztaia be ingo zeuein.
- Bai, bai, gaztaia bai, gaztaia gero ba haik pillatxua itten zanian astokada bat hartu eta Bergarara.
- Bergarara? Zeatik ez Oñatira?
- Oñatin baiño zer gehixau euelako han, hemen Oñatin pastore asko euen eta Bergaran gutxiao eta Bergaran saldu itten ziren samurrao, samurrao ba, gurian esaten euen moduan jakinddako klientiak egoten ziren, euk(ik)o zittuein 20, 30 edo 40 gaztae ta gehixenak hango dendarixak eta erueten euen, bata hartuko otsan hamar eta bestiak zortzi eta bestiak..., holaxe.
- Eta hori, Aurreko Menditarrak danak Bergara aldera joeria?
- Bai, askok behintzet bai eta beste batzuk baita lehenao baita, Zumarragara faten ziren. Zumarragara hortik billotsakin ta hola.
- Bai, han Legazpiko kurtzia be bertantxe dago.
- Bai, bai, Zumarragara bai, nere andrien etxekotako mutilla Zumarragara fan zan zerakin, hor Azkazubikua, fan zan Zumarragara billotsakin udabarrixan eta bueltan etorrela edurrak hil eben, itto, hil in eben, hil zan.
- Hotzak?
- Hotzak. Edur bisutsakin itto, itto in eben ha. Bai eta ...
- Ze edadekin hori?
- 18 urtekin. Eta abillian.
- Udabarrixan, e!
- Bai, bai, udabarrixan. Hara billotsak eruatera abillian hil zan ha.
- Eta zuek errekauek ittera ta, kalera etorten ziñain?
- Bai, bai, kalera, kalera, Bergara urriñago geraketan da; astuan, hartu astua ta ba kalera, eta bestela ba hamabostian behin edo, bai, hamabostian behin, hartu astua eta garixa ixotera zera, Errotabarrira, eta

artua ixotera Liñazibarera, hor be ixoten euen baiña gari edo Liñazibaren arto uruna itten euen asko hobia, hori harrixen asuntuatik izan bihar dau, Liñazibaren itten euen hobia artua; eta garixa hemen hobia eta holaxe, betik holaxe in dogu, hartu astua ta aide, eta gu mutikuak, astuak jakitten eben bidiak, harek ez dako esan biharrik, mutikuak astuan etxian lotu zeori, zorruori eta astua zuzen fango zan, e? Kalera etorten zan Torretik behera astua taka-taka, Ankaluzetik hor, Naparreneko kantaletik zuzenian, zerera, hori Linazibarera zuzenian kalia pasauta. Ha ez zan ekibokaitten.

9. Klean jantzetxea

- **Erref:** ONA-053/013
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:38:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Lehengo mendi-bideak oso egoera txarrean zeuden; baserrietako astoak eta gurdiak ezezik, karreteroak ere haietatik ibiltzen ziren. Jantzetxea ere oso garrantzitsua zen baserritarrentzako; baserriko gauzekin ordaintzen zuten haren erabilera.</p>

10. Kale baserriak

- **Erref:** ONA-053/014
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:38:06. **Bukatu:** 00:40:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Lehen herriko kale asko baserri etxez beteta zeuden. Aurreko Mendiko 10 baserriak gaur hutsik daude.</p>

Transkripzioa

- Ta asko aldatu da kalia?
- Jo, aldatu kalia! Kalia asko aldatu da bai, asko, hemen hasi bai barrenian, eta hemen baserrixak egozen hasi Kurtzeko eta Olanen eta Kurtzeko eta hemen Sarriko eta hemen hasi bai gora ta hau, hau Kanpantxon dana baserrixa izan zan, hori Erlenak eta honeik eta atezkalde [...] San Anton kalia ixa dana, dana baserrixa zan, Mendiko kalia dana baserrixa zan eta horreik hementxe Torrealde asko ta San Juan Kale aldia horreik be danak, San Juan Kale dana baserrixa ziren. Ba borixe, batzuk banastagiñan egitten euen baiña euren behiak eta soruak eta dana. Torrealde be han egoten zan, baiña metro bat hola labrau barik, dana, garixa, artua, babia eta danak, eta oin ba aldatu, horreik danak desapareziu ziren horreik, Torrealde ta hola, zelai dau, ta horreik hemen be beste baserri batzutan be igual, Zañartu be, ze esango dotsut ba nik, Zañartu halako auzo oso bikaiña izan da, ezta? Baiña oin bi behi, lau behi egongo dira, hogeta eta eztakit zenbat etxe eta lau behi bakarrik.
- Dana piñua!

- Lehen hor San Julian aldian faldan ta zelaixak ezta? Hareik danak piñu.
- Eta zeuen auzua asko aldatu da?
- Gure auzua? Ha goikua? Bai. Dana hutsik dao, dana. Hamar etxe ta danak hutsik.

11. Auzoko gizartea

- **Erref:** ONA-053/015
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:40:00. **Bukatu:** 00:42:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Eskola Larrañan zegoen eta eliza, berriz, Garibaiko partean. Jaietan meza entzun ondoren, Lizargaraten elkartzen ziren. Urtean behin, abuztuan, Antzuolako sailetan inguruko milaka lagun elkartzen ziren jai giroan.

12. Baserriko lanak

- **Erref:** ONA-053/016
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:42:34. **Bukatu:** 00:46:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>14 urte arte eskolara joan zen. Etxean beti lanean. Soroetan noiz eta zer ereiten zen azaltzen du. Neguan ikatz apur bat egiten zuten. Udararen belar ihartzea izaten zen. Simaurra egiteko garoa ere batzen zuten.</p>

13. Lantegira lanera

- **Erref:** ONA-053/018
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:47:41. **Bukatu:** 00:51:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Soladuskatik etorri eta Garai lantegian hasi zen lanean. Euskal Herritik kanpora joaten ziren muntaketak egitera. Lan egun luzeak izaten zituzten eta zapatuetan ere lanera joaten ziren. Bere garaian ere izaten ziren lan istripuak.

14. Etxeko jakiak

- **Erref:** ONA-053/020
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:52:09. **Bukatu:** 00:55:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Etxean txerriak hazten zituzten etxerako edota salmentarako. Gazurarekin eta etxeko berdura eta soberakinekin gobernatzen zituzten txerriak. Ardikiarekin egindako zezina eta gaztainak (bere garaian) ere ohikoak ziren etxeko elikaduran; baita etxean egindako ogia eta taloak ere.

15. Arropak zaintzen

- **Erref:** ONA-053/021
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:55:40. **Bukatu:** 00:58:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Ur-deposituak teilatuko urak biltzen zituen. Edateko ura iturritik ekarri behar izaten zuten. Arropak astoan kargatu eta albergara joaten ziren garbitzera, puxeta egin ondoren. Itxitura gainetan esekitzen zituzten garbitu eta gero, eta erne ibiltzen ziren inguruetan ijitorik bazezilen.</p>

16. Oñati inguruan ibiltzen ziren ijitoak

- **Erref:** ONA-053/022
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:58:40. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Ijitoak ibiltzen ziren auzoan zehar, eskean edota lapurretan. Ijitoak neguan mendi-txabolak erabiltzen zituzten bizilekutzat, baita erditzeko ere noizbait.</p>

Transkripzioa

- Lehenau asko ibiltzen ziran, ezta, baserrixetan? Jitanuak baserririk baserri asko ibiltzen ziran, ez?

- Baiña ze akordaitten xaten hori, ohosketia, astua zerien kabezadia sartuta bai, eta astua handik akordau eta bazkaitten, bazkaldu egin ta fan eta astuak kabezadia falta. Jittanua, haxe be harrapo, e?

- Bai, e?

- Haxe be harrapo. Ta ni akordaitten naiz araixak, artalderako arai zerak eta araixak eta, egoten ziren hola udaran zerien, hola gobernaitten egoten ziren etxe onduan soka... eta kati en be etxe batzuk eukitten euen, katie luze bat, eta ha lotu ta iñora be ez zan faten, eta araixori hantxe. Eta ba

behin falta ta araixori libre, joiño, zela pasau dok ba hau hemen? Kateia falta. Ta bueno ba kitto, kateiori falta. Ta handik ba hamabost egunera edo zera ta; hi! Antzuolako baserri batekuak: zueri pasau xatzue? Katerik falta dozue araixenik? Eta bai. Eta ze ba? Geurera etorri zittuan, ogi baten truke kateiori! Ostu, eta ...

- Beste baserrira fan.

- Bai, eta ogi baten truke kateia. Hortantxe, bestela be hola zeozer baeuen osketako modukua, eta iñor inguruan ez baeuan, hori seguru.

- Eta eskiara etortzen ziran etxetara?

- Etxera be bai, horixe etxera. Gure etxe ondoko hala be egoten ziren hareik batzutan. Horreik jittanuak lanik ez, bapez, jittanuak sekula ez dau lanik in. Eurak ez direla hortarakuak, baiña ostu bai, e? Bueno... ostu bai.

- Eta eskian ala... edo zeozer saltzera etortzen ziran? Edo bestela eskian? Eske etorten ziran etxera?

- Bai, bai, hareik gura izaten euen dana, ogi zati bat edo tremesa edo, artoruna edo patatia edo, eske, eske baiña horixe. Eta horreik izan zan hori raza hori ba, oin ezkuta da hemen, ezkuta da.

- Kanbixau igual, lehen baserrixetan ibiltzen ziran eta...

- Bai, bai, eta hemen horreik itxabola jekitteñuak eukitten euein horreik, geure, horreik hola neguan, aizegordian dauen itxabolak negua pasaitteko ta.

- Han bizi ziran?

- Bai, hemen errekatik goratxuago, ezkutauta dago txabola bat, bota euen ha, bat, andra batek hortxe umia in eben, etxabolan, e? Hortxe, hori klinikia, e? Hortxe, basuan, etxabolan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com